

**Anexo con
información de
ponentes y datos
del evento**

**Hizlarien eta
ekitaldien informazio
gehigarria**



Virginia Arechavala Gomeza

NAUKAS

Virginia Arechavala Gomeza, investigadora del Instituto Biocruces, lidera el grupo europeo de Investigación de Enfermedades Neuromusculares.

Virginia Arechavala Gomeza, Biocruces Institutuko Gaixotasun Neuromuskularrak ikerketa taldeko burua.

Virginia Arechavala Gomeza, doctora en Neurología, lidera el Grupo europeo de Investigación de Enfermedades Neuromusculares desde el Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces para el desarrollo de una nueva clase de medicamentos, los oligonucleótidos antisentido. Estos fármacos podrían corregir mutaciones de enfermedades genéticas hereditarias, modular enfermedades autoinmunes o neurodegenerativas o atacar tumores o virus.

La red está formada por más de 70 investigadores de 24 países diferentes y aúna los esfuerzos de investigadores, médicos, pacientes, industria farmacéutica y reguladores para poner en común el conocimiento existente sobre la distribución de estos compuestos en el organismo y permitir que alcancen su máximo potencial hasta convertirse en una opción terapéutica convencional.

Arechavala Gomeza ha realizado importantes investigaciones en torno al ELA (Esclerosis Lateral Amiotrófica) y la distrofia muscular de Duchenne. Forma parte de diferentes redes internacionales de investigación científica y ahora lidera desde IIS Biocruces la red europea de Investigación de Enfermedades Neuromusculares.

Virginia Arechavala Gomeza Neurologian doktorea da, Gaixotasun Neuromuskularrak Ikertzeko Europako Taldea zuzentzen du Biocruces Osasun Ikerketako Institututik, zentzu-aurkako oligonukleotidoak deritzen medikamentu berriak garatzeko. Farmako hauek gaixotasun genetiko hereditarioei atxikitako mutazioak zuzentzeko, gaixotasun autoimmuneak edo neurodegeneratiboak modulatzeko eta tumoreei zein birusei eraso egiteko aukera emango lukete.

Sarea 24 herrialdeetako 70 ikertzailek baino gehiagok osatzen dute eta ikertzaileen, medikuen, pazienteen, industria farmazeutikoaren nahiz erregulatzaileen ahaleginak bilten ditu, konposatu horiek organismoan duten banaketari buruzko ezagutza partekatzeko eta potentzialtasunik handienera igotzen laguntzeko, aukera terapeutiko konbentzionala bihurtu arte.

Arechavala Gomezak garrantzi handiko ikerketak egin ditu AEArri buruz (Alboko Esklerosi Amiotrofikoa) eta Duchenneren distrofia muskularrari buruz. Ikerketa zientifikorako nazioarteko hainbat saretako kidea da eta egun, Biocruces Ollitik, Gaixotasun Neuromuskularrak Ikertzeko Europako Sarea zuzentzen du.



Antonio Pérez Martínez

NAUKAS

Antonio Pérez Martínez, jefe del Servicio de Oncología Pediátrica del Hospital Universitario de La Paz.

Antonio Pérez Martínez, La Paz Unibertsitate Ospitaleko Onkologia Pediatrikoaren Zerbitzuko burua.

El doctor en pediatría Antonio Pérez Martínez es el jefe de Servicio de Hemato-Oncología Pediátrica del Hospital Universitario La Paz (Madrid) y es investigador principal del Grupo de Investigación Traslacional en Cáncer Infantil, Trasplante Hematopoyético y Terapia Celular del Instituto de Investigación Sanitaria en el Hospital La Paz. También es el responsable de la Unidad de Investigación Clínica en Oncohematología Infantil acreditada por el consorcio europeo Innovative Therapies For Children with Cancer (ITCC) y miembro del comité ejecutivo de la Red Europea de Referencia en Trasplante Pediátrico (Transplantchild).

Autor de más de 100 artículos científicos, ha dirigido seis tesis doctorales y realizado tres estancias internacionales postdoctorales en los Departamentos de Trasplante Hematopoyético y Terapia Celular del Hospital de St Jude (Memphis, EEUU), en el Servicio de Trasplante de Progenitores Hematopoyéticos del Hospital Infantil de Tübingen, Alemania, y en el Departamento de Inmunología y Trasplante Hematopoyético del Mason Cancer Center en la Universidad de Minnessota.

Por todo este trabajo ha recibido importantes reconocimientos y premios como el Premio de investigación Social de la Fundación Caja Madrid, el premio internacional Sanofi "My child matters", el premio nacional en ciencias de la Salud del Ministerio de Defensa (Comandante Fidel Pagés Miravé), o el premio al mejor proyecto nacional del cáncer infantil de la Asociación Española Contra el Cáncer.

Antonio Pérez Martínez, Pediatrician doctor, La Paz Unibertsitate Ospitaleko (Madrid) Hemato-Onkologia Pediatrikoaren Zerbitzuko burua da, baita La Paz Ospitaleko Osasun Ikerketako Institutuko Haur Minbizi, Transplante Hematopoyetiko eta Terapia Zelularrari buruzko Ikerketa Traslazionalaren Taldeko ikertzaile nagusia ere. Horrekin batera, Innovative Therapies For Children with Cancer (ITCC) europar partzuergoak akreditatutako Haur Onkohematologiari buruzko Ikerketa Unitatearen arduraduna eta Europako Transplante Pediatrikorako Erreferentziako Sarearen (Transplantchild) batzorde exekutiboko kidea da.

100 artikulua baino gehiago argitaratu dituelarik, sei doktorego tesi zuzendu eta doktorego ondoko nazioarteko hiru egonaldi egin ditu St Jude Ospitaleko (Memphis, AEB) Transplante Hematopoyetiko eta Terapia Zelularreko departamentuetan, Alemaniako Tübingen hiriko Haur Ospitaleko Guraso Hematopoyetikoen Transplante Zerbitzuan eta Minnessotako Unibertsitateko Mason Cancer Centerreko Inmunologia eta Transplante Hematopoyetikoaren Departamentuan.

Lan horiengatik, garrantzi handiko sariak eta aintzatespean eskuratu ditu; hala nola, Caja Madrid Fundazioaren Gizarte-Ikerketako Saria, Sanofi "My child matters" nazioarteko saria, Defentsa Ministerioaren osasun zientzietako sari nazionala (Fidel Pagés Miravé komandantea) edota Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarteak emandako haur-minbiziaren arloko Estatuko proiektu onenarentzako saria.



Héctor Socas Navarro

NAUKAS

Héctor Socas Navarro, director del Museo de la Ciencia y el Cosmos de Tenerife.

Héctor Socas Navarro Tenerifeko Zientziaren eta Kosmosaren Museoko zuzendaria.

Héctor Socas Navarro es el director del Héctor Socas-Navarro es doctor en Ciencias Físicas y el director del Museo de la Ciencia y el Cosmos de Tenerife. Además, es un entendido en Física solar y se ha convertido en todo un referente del ámbito.

Ha trabajado en centros y proyectos internacionales como el National Center for Atmospheric Research, la Agencia Estatal Japonesa o el Solar Dynamics Observatory de la NASA. También fue durante una década el responsable científico del Telescopio Solar Europeo.

Ha sido nombrado director del Museo de la Ciencia y el Cosmos de Tenerife con el objetivo de dinamizar el centro con encuentros, debates y actividades que acerquen a la población los últimos avances astrofísicos, así como para abrir el museo a Internet con materiales y contenido de calidad.

Junto al trabajo científico en proyectos internacionales, Socas también destaca por liderar diferentes iniciativas divulgadoras como el programa de radio “Coffee Break Señal y Ruido” que se emite en diferentes emisoras y canales online.

Apasionado de la astrofísica busca tanto con su actividad científica y divulgadora acercar al gran público todos los procesos energéticos que se producen en la superficie del Sol y ayudan resolver los enigmas que todavía encierra este desconocido astro.

Héctor Socas Navarro, Zientzia Fisikoetan doktorea, Tenerifeko Zientziaren eta Kosmosaren Museoko zuzendaria da eta Kanariar uharteko Astrofisika Institutuko astrofisikaria. Eguzki-fisikan aditua da eta erreferentziatzko ikertzailea bilakatu da esparru honetan.

Nazioarteko proiektu eta zentroetan lan egin du; hala nola, National Center for Atmospheric Research, Japoniako Espazio Agentzia, edota NASAREN Solar Dynamics Observatory delakoa. Horrez gain, Europako Eguzki Teleskopioaren arduradun zientifikoa izan da hamarkada batez.

Tenerifeko Zientziaren eta Kosmosaren Museoko zuzendari izendatu dute zentroa dinamizatzeko, azken aurrerapen astrofisikoak herritarrengana helarazten lagun dezaketen topaketen, eztabaiden eta bestelako jardueren bitartez, eta museoa Internetarako irekitzeko, kalitatezko material eta edukien laguntzaz.

Nazioarteko proiektuetan egindako lan zientifikoarekin batera, Socas dibulgazioaren arloko hainbat ekimen bultzatzeagatik ere nabarmendu da. Adibidez, hainbat irrati eta online kanaletan ematen duten “Coffee Break Señal y Ruido” deritzon saioa.

Astrofisikaren zaletu amorratua izanik, berealdiko ahalegina egiten du jarduera zientifikoaren zein dibulgazio-lanaren bitartez, jendeak Eguzkiaren gainazalean gertatzen diren prozesu energetikoak ezagut ditzan, astro ezezagun horrek oraindik gorderik dituen enigmak argitzen laguntzeko.



Isabel Moreno Muñoz

NAUKAS

Isabel Moreno Muñoz, licenciada en física y meteoróloga en el programa "Aquí la Tierra" de TVE.

Isabel Moreno Muñoz, fisikari lizentziatua TVEko "Aquí la Tierra" saioaren meteorologoa.

Isabel Moreno Muñoz, meteoróloga y presentadora en el programa Aquí la Tierra de TVE, donde desempeña labores de búsqueda y adaptación de material de interés científico y meteorológico para compartirlo después con todos los públicos. Los domingos, además, presenta el pronóstico del tiempo en el mismo programa.

La ciencia siempre ha sido su vocación. Lleva años intentando entender el comportamiento de la naturaleza desde un punto de vista físico para después compartirlo con el gran público. Estudió Física en la Universidad Complutense de Madrid, donde terminó enamorándose de la atmósfera, y continuó su formación cursando un máster de "Meteorología y Geofísica" en la misma Universidad.

Ha presentado el pronóstico del tiempo en El País, en diversas radios y en el tiempo.es donde, además de realizar labores de previsión, realizaba artículos divulgativos de ciencia o análisis de datos para elaborar, por ejemplo, climatologías.

Acaba de participar en los Cursos de Verano de la UNED como ponente sobre la necesidad de responder a los desafíos que plantea el cambio climático y la necesidad de traducir las evidencias científicas en mensajes transformadores para la sociedad.

Isabel Moreno Muñoz, TVEko Aquí la Tierra saioaren meteorologoa da. Azken jardun honetan, interes zientifikoa duen materiala bildu eta egokitzen du, publiko guztiarekin partekatu ahal izateko. Igandero, eguraldiaren iragarpena aurkezten du saio berean.

Zientzia izan da beti bere bokazioa. Urteak daramatza naturaren portaera ikuspuntu fisikotik ulertzeko ahaleginean, publiko osoarekin partekatu ahal izateko. Fisika ikasi zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta gerora, atmosferaz maiteminduta, "Meteorologia eta Geofísica" deritzon masterra egin zuen Unibertsitate berean.

Eguraldiaren iragarpena aurkeztu du El País-en, hainbat irratan eta el tiempo.es webgunean, eta azken honetan, iragartzeaz gain, dibulgaziozko artikulak argitaratu edo datuak aztertzen zituen klimatologiak lantzeko, adibidez.

Berrikitan, hizlari gisa parte hartu du UNEDeko Udako Ikastaroetan, klima-aldaketak dakartzan erronkei erantzuteko eta ebidentzia zientifikoa gizartearen mesedeko mezu eraldatzaileak bihurtzeko premia aztertu duelarik.



Eva Ferreira García

NAUKAS

Eva Ferreira García, catedrática de Economía Aplicada de la UPV/EHU y experta en estudios relacionados sobre la brecha de género.

Eva Ferreira García, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko katedraduna da eta genero-etenari buruzko ikasketen arloko aditua.

Eva Ferreira García es catedrática de Economía Aplicada y profesora de la Facultad de Ciencias Económicas de la UPV/EHU, además de directora de la Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco – Unibasq. Asimismo, es licenciada en matemáticas y doctorada en economía, así como experta en estadística y probabilidad.

Su trayectoria investigadora se ha centrado en el estudio de los procesos estocásticos y la estimación no paramétrica, con aplicaciones en finanzas, brecha de género y el efecto techo de cristal, temas que tratará en su ponencia que lleva el título “Hacer predicciones es más difícil, sobre todo las de futuro”.

Además de su labor docente e investigadora, Ferreira ha formado parte de varios equipos rectorales de la UPV/EHU, donde ha desempeñado los cargos de Vicerrectora de Organización Académica y Coordinación y Secretaria General.

Junto a su labor científica también elabora artículos de divulgación en el blog Mujeres con Ciencia de la Cátedra Científica de la UPV/EHU donde pone en valor los esfuerzos de mujeres a lo largo de toda la historia por visualizar sus trabajos realizados en el campo de la ciencia.

Eva Ferreira García UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko katedraduna eta Ekonomia Zientzien Fakultateko irakaslea da, baita Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Akreditatzeko Agentziako zuzendaria ere. Horrez gain, matematikan lizentziatua eta Ekonomian doktoratua da eta estatistika eta probabilitatearen arloko aditua da.

Finantzetan, genero-etenean nahiz kristalezko sabaiaren efektua deritzonean aplika daitezkeen prozesu estokastikoak eta estimazio ez-parametrikoa dira haren ikerketa-ibilbidearen ardatz, eta gai horiei guztiei buruz hitz egingo du jendaurreko hitzaldian: “Hacer predicciones es más difícil, sobre todo las de futuro” (Aurreikuspenak egitea zailagoa da, batez ere etorkizunekoak).

Irakaskuntza eta ikerketa arloetako lanaz gain, Ferreira UPV/EHUko zenbait errektore-taldetako kidea izan da. Bestek beste, Antolaketa Akademikoko Koordinazioko errektoreorde eta Idazkari Nagusi karguak bete ditu.

Zientzia-jardunarekin batera, Kultura Zientifikoko Katedraren Mujeres con Ciencia blogerako dibulgazioko artikulua lantzen ditu, emakumeen zientzia arloko lanak bistaratzeko historia osoan egin dituzten ahaleginak aitortu eta nabarmentzeko.



José Luis Crespo Cepeda

NAUKAS

José Luis Crespo Cepeda, físico y youtuber. Su canal, Quantum Fracture, sobre divulgación científica en español es el canal con mayor número de seguidores.

José Luis Crespo Cepeda fisikaria eta youtuberra da. Quantum Fracture gaztelaniazko zientzia-dibulgaziozko kanalaren arduraduna.

José Luis Crespo abrió su canal de Youtube por afición al comienzo de su carrera de Físicas en la Universidad Autónoma de Madrid hace ocho años. Al terminar los estudios ya era un pionero de la divulgación científica en castellano y hoy en día es el youtuber profesional que más seguidores tiene, a través de su canal de divulgación científica Quantum Fracture, donde explica de manera breve y amena los últimos avances de la Ciencia. En su último vídeo habla sobre cómo el cerebro procesa la ciencia con cerca de medio millón de visualizaciones en tan solo tres días.

José Luis Crespok zaletasunak bultzatuta ireki zuen Youtubeko kanala duela zortzi urte, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Fisikako karrera hasi zuenean. Ikasketak amaitu zituenerako gaztelaniazko zientzia-dibulgazioaren aintzindaria bihurtua zen, eta egun, Espainian jarraitzaile gehien duen zientzia-dibulgaziozko youtuber profesionala da. Quantum Fracture kanalean labur-labur eta modu atseginean, zientzia-arloko azken aurrerapenak azaltzen ditu. Azken bideoan, garunak zientzia nola prozesatzen duen aztertu du eta hiru egunetan milioi erdi bat bistaratze lortu ditu.

La calidad de su contenido y el rigor de su divulgación le han merecido el Premio de Divulgación Científica 2014 del Centro de Físicas Partículas y el de Divulgación Científica en Internet en 2018, entre otros. Siempre con una selección personal de temas y un estilo propio en el que aborda tanto mitos y temas de actualidad como los impactos del cambio climático o temas específicos en torno a la Física Cuántica, agujeros negros o el legado de los grandes científicos.

Edukien kalitateagatik eta dibulgazioaren zorrotasunagatik, Partikulen Fisikako Zentroak emandako Dibulgazio Zientifikoaren Saria lortu zuen 2014an, eta Interneteko Dibulgazio Zientifikoaren Saria 2018an, bestiek beste. Berezko estiloa erabiliz eta gaiak bere kasa hautatuz, mitoak eta gaurkotasunezko gaiak aztertu ohi ditu; hala nola, klima-aldaketaren inpaktuak, Fisika Kuantikoaren arloko gai espezifikoak, zulo beltzak edo zientzialari handien legatua.

Naukas Bilbao

Naukas Bilbao es el mayor evento de divulgación científica realizado en español. Se trata de un espectáculo de dos días dirigido a todos los públicos y dedicado a divulgar conocimiento científico de una manera sencilla y desenfadada. Este año cumplirá su novena edición y se celebrará en el Auditorium del Palacio Euskalduna.

El grueso del programa está compuesto por charlas de 10 minutos de duración. Cada una trata sobre una temática diferente, lo que confiere al espectáculo un ritmo muy dinámico. Además, los ponentes se valdrán para ello de actuaciones teatrales, música en directo, humor y representaciones musicales.

Este evento también acogerá la entrega de premios de Ciencia Clip, un concurso de vídeos sobre ciencia para estudiantes de secundaria. Durante el mismo, se anunciarán los ganadores de los premios especiales del jurado. El equipo que resulte vencedor en este certamen obtendrá un viaje al CERN, el mayor laboratorio de física del mundo, situado en Ginebra (Suiza).

En el hall del Palacio Euskalduna habrá un espacio para la venta de libros y revistas sobre ciencia. Contará con stands de la editorial Elkar, el servicio editorial de la UPV/EHU, Udako Euskal Unibertsitatea, Next Door Publishers y Naukas.

El evento se celebrará en el Auditorium del Palacio Euskalduna. Entrada libre y gratuita hasta completar aforo.

Todas las charlas de este año estarán disponibles en EITB Kosmos.

Naukas Bilbao

Naukas Bilbao da gaztelaniaz antolatzen den zientzia-dibulgaziozko ekitaldirik handiena. Publiko guztie zuzendutako bi eguneko ikuskizuna da, ezagutza zientifikoa modu atsegina eta informalean ezagutzera ematea xede duena. Aurten, bederatzigarren edizioa beteko du Euskalduna Jauregiko Auditoriumean.

Programa hamarna minutuko hitzaldiek osatzen dute. Bakoitzean gai bat jorratzen dute, eta horrek erritmo bizi-bizia ematen dio ikuskizunari. Gainera, hizlariak antzezpenez, zuzeneko musikaz, umoreaz eta musika emanaldiez baliatuko dira horretarako.

Ekitaldi honen barnean, Ciencia Clip, Bigarren Hezkuntzako zientzia-dibulgaziozko bideo lehiaketaren sariak banatuko dira. Bertan, epaimahaiaren sari bereziaren irabazlea ere emango da ezagutzera. Lehiaketa irabazten duenak Genevan (Suitza) dagoen munduko fisika-laboregirik handiena, CERN deritzona, ezagutzeko bidaia lortuko du.

Euskalduna Jauregiko atarian zientzia-dibulgaziozko liburu eta aldizkariak kontsultatu eta erosteko aukera egongo da, Elkar, Naukas, Next Door, UEU eta UPV/EHU argitaletxeek jarriko dituzten standetan.

Ekitaldia Euskalduna Jauregiko Auditoriumean egingo da. Sarrera libre eta doakoa aforoa bete arte.

Aurtengo hitzaldi guztiak ondoko estekan eskuratu ahal izango dira: EITB Kosmos.

Naukas Pro

Naukas Pro es un evento dirigido a ofrecer, en charlas de 20 minutos, diferentes visiones sobre el ejercicio profesional de la ciencia a cargo de profesionales que desempeñan su actividad científica en empresas, institutos de investigación o universidades.

En estas charlas compartirán sus experiencias, explicarán en qué consiste su trabajo y revelarán sus innovaciones más llamativas.

Sus testimonios servirán para mostrar el trayecto que, si es el caso, siguen los productos desde su concepción en el laboratorio hasta su comercialización en el mercado, de una manera comprensible y cercana. El público obtendrá, de esta manera, una imagen de la industria de la ciencia explicada en primera persona por los propios protagonistas.

El evento se celebrará en la sala 0E del Palacio Euskalduna el jueves por la tarde, día 19 de septiembre (17.00-20.00 horas). Entrada libre y gratuita hasta completar aforo.

Naukas Pro

Naukas Pro ekitaldia hogeina minutuko hitzaldiez baliatzen da zientziaren jardun profesionalaren inguruko hainbat ikuspuntu eskaintzeko, enpresetan, ikerketa-institutuetan nahiz unibertsitateetan jarduera zientifikoa garatzen duten profesionalen eskutik.

Hitzaldi hauetan, esperientziak partekatu, zertan lan egiten duten azaldu eta berrikuntzarik deigarrienak emango dituzte ezagutzera.

Esperientziak, haien lanen nondik-norakoak eta berrikuntza deigarrien inguruan hitz egingo dute profesionalak, eta modu honetan, laborategietako kontzepziotik merkatura iritsi arte produktuek egiten dituzten bideak modu ulergarri eta hurbilean azalduko dute. Zientziaren industriaren irudi orokorra lortuko du publikoak, protagonisten eskutik.

Ekitaldia Euskalduna Jauregiko 0E aretoan egingo da ostegun arratsaldean, irailak 19 (17.00-20.00). Sarrera librea eta doakoa aforoa bete arte.

Naukas Kids

Naukas Kids es un evento de divulgación científica dirigido a los más jóvenes y consiste en espectáculos, circo, talleres y humor para acercar la ciencia a los más pequeños.

Tendrá lugar el domingo 22, en horario de 10.00 a 13.30 horas, en el edificio Bizkaia Aretoa de la UPV/EHU con entrada libre y gratuita hasta completar aforo. Una vez completado el aforo se cerrarán las puertas de acceso. Una vez cerradas las puertas se dará entrada a nuevos asistentes según vayan abandonando el recinto los participantes anteriores.

Para participar en los talleres no hace falta inscribirse. Se realizarán grupos ajustados a cada actividad en orden de llegada. Las actividades tendrán una duración de 30-40 minutos y el espectáculo durará una hora. Una vez finalizado un grupo, los siguientes en el turno de espera pasarán a realizar la actividad.

Naukas Kids

Naukas Kids gazteenei zuzendutako zientzia-dibulgazioko ekitaldia da, eta ikuskizunez, zirkuaz, tailerrez eta umoreaz baliatuta, zientzia txikienei hurbiltzen ahalegintzen da.

Igandean antolatuko da, hilak 22, 10.00etatik 13.30etara bitartean, UPV/EHUren Bizkaia Aretoan, eta sarrera libre eta doakoa izango da aforoa bete arte. Behin aforoa beteta, sartzeko ateak itxiko dira. Ateak itxi ondoren, jendea irten ahala baimenduko da pertsona berrien sarrera.

Tailerretan parte hartzeako ez da beharrezkoa izena ematea. Jarduera bakoitzerako taldeak eratuko dira, iritsieraren hurrenkeraren arabera. Jarduerak 30-40 minutuko iraupena izango dute, eta ikuskizunak ordubete ingurukoa. Talde batek amaitu ondoren, zain dagoen hurrengoak ekingo dio jarduera egiteari.



Bidebarrieta Científica

Iniciativa que organizan todos los meses la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU y la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao para divulgar asuntos científicos de actualidad. Sendas charlas darán comienzo y final a Bizkaia Zientzia Plaza los días 18 y 25 de septiembre.

El evento será gratuito pero habrá que acceder con invitación. Las invitaciones se podrán recoger en la propia Biblioteca Bidebarrieta.

La charla del día 18 la impartirá Francisco A. González bajo el título: “Leonardo Torres Quevedo en Bilbao, 1919-2019: Náutica, Aeronáutica y Computación” de 19.00 a 20.00 horas.

La conferencia del día 25 será impartida por el periodista y divulgador Antonio Martínez Ron con el título: “Plasticidad a la carta, un plan B para salvar cerebros”.

Bidebarrieta Zientifikoa

UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bilboko Bidebarrieta Liburutegiak hilabetero antolatutako ekimena, gaurkotasunezko gai zientifikoak ezagutzera ematea xede duena. Bi hitzaldiek hasiera eta amaiera emango diote Bizkaia Zientzia Plazari irailaren 18an eta 25ean.

Ekitaldia doakoa izango da baina gonbidapenarekin joan beharko da. Gonbidapenak Bidebarrieta Liburutegian bertan eskuratu ahal izango dira.

Hilaren 18an, Francisco A. Gonzálezek hitzaldia izango da: “Leonardo Torres Quevedo en Bilbao, 1919-2019: Náutica, Aeronáutica y Computación”. 19.00etatik 20.00etara bitartean.

Hilaren 25eko hitzaldia Antonio Martínez Ron kazetari eta dibulgatzaileak emango du: “Plasticidad a la carta, un plan B para salvar cerebros”.



Ciencia Show

Ciencia Show es un concurso de monólogos sobre ciencia para estudiantes de enseñanza secundaria (entre 3º de ESO y 2º de Bachillerato) que busca acercar a los jóvenes la ciencia y la tecnología de forma amena y divertida.

Dentro de Bizkaia Zientzia Plaza se celebrará la final del concurso organizado por Big Van, donde los seis finalistas serán juzgados por el jurado en base al contenido científico, el propio monólogo y la originalidad.

Se celebrará en la Sala OC del Palacio Euskalduna.

Ciencia Show

Ciencia Show bigarren hezkuntzako ikasleei (DBHko 3. mailatik eta Batxilergoko 2. mailara) zuzendutako zientzia monologo lehiaketa da, modu atsegin eta dibertigarrian gazteak zientziara eta teknologiara hurbiltzea helburu duena.

Bizkaia Zientzia Plaza ekimenaren barruan Big Vanek antolatutako lehiaketaren finala egingo da. Sei finalistek egindako monologoaren eduki zientifikoa, monologoa bera eta originaltasuna dira epaimahaiak baloratuko dituen alderdiak.

Euskalduna Jauregiko OC gelan izango da.